

8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektu honetan funtsezko jarduera batzuk izango ditugu, hala nola, larunbatetan adibidez, tolosako azokan postu bat ipiniko dugu non bertan panfletoak jarriko ditugu gure ideiak zeintzuk diren azaltzeko, beraiek jakiteko eta bidioak ere ipiniko ditugu hobeto ulertzeko. Bideoan azalduko ditugun gauza edo ideiak panfletoan azaltzen direnak izango dira. Baina, pausoz pauso azalduko diegu edozein adineko jendeari iritsi dadin.

Horretaz gain, gu bertan egongo gara, ulertu ez den informazioa guk ahoz adierazteko eta horrela gure proiektua saltzen saiatuko gara.

Bertan ere, simulazio moduko bat egingo dugu, gure proiektuak nola funtzionatuko duen argi gelditzeko, batzuetan azalpenekin nahikoa ez denez, simulazio honekin ideia guztiak argi gelditzea lortu nahi dugu eta horrela gure proiektuari buruzko zalantzak ez izatea.

Hala eta guztiz ere, aurreko baliabideetan esan dugun bezala, edozein momentutan zalantzarik sortu ez gero, denda fisikora gerturatzean, bertako langileak zalantza guztiak argituko ditu. Ez da edozein langile izango, baizik eta proiektuaren barruan sartuta dagoen bat, proiektuari buruzko kalitate guztiak izango dituenak.